

El público se volcó con el 70 aniversario del Festival de CIne.
PABLO GÓMEZ

¡A por los siguientes 70!
ALEX ABRIL

# ‘Zorionak zuri’ abestuta zabaldu da 70. edizioa

Zinemaldiaren inaugurazio-galaren ardatza lehiaketaren urteurrena izan da; izan ere, duela zazpi hamarkadatik lehiaketa babestu duten ikus-entzuleak omentzeko balio izan baitu.

“Komedia arinean” egin da zeremonia, eta Loreto Mauleón eta Paco León aurkezleak NODOko pertsonaia bihurtu dituen bideo-muntaketa batean agertu dira; horren ondoren, 1953an (Zinemaldiaren lehen edizioan) Goizaldi taldeko dantzari gisa parte hartu zuten lau emakume gonbidatu dituzte agertokira: Milagros Zatarain, Mariví Montes, María Arbizu Corpus eta Mila de Salustiano.

Ondoren, Edurne Ormazabal kazetariak, “Imaginatu Zinemaldia” erakusketa bisitatzeko proposamena egin die ikus-entzuleei. Belén Cuesta antzezleak, bestalde, FIPRESCI Sari Nagusia aurkeztu du Ryūsuke Hamaguchiren *Drive My Car* filmarentzat, Zinema Kritikarien Nazioarteko Federazioko kideek aurtengo film onentzat jo baitute japoniarraren lana.

Zuzeneko musika Mikel Erentxun musikari donostiarraren eta Rocío Márquez flamenko-kantari andaluziarraren esku egon da. Eta musikak emozioari egin dio tarte, Zinemaldiaren antolakuntzan parte hartu zuten baina duela gutxi hil diren lau pertsonari eskaini baitzaie in memoriam atala: Alfredo Knuchel, Mariano Larrandia, Tony Partearroyo eta José Ángel Herrero-Velarderi.

Halaber, Zinemaldiak ongietorria eman die Epaimahai Ofizialeko kideei: Antoinette Boulat, Tea Lindeburg, Rosa Montero, Lemohang Jeremiah Mosese, Hlynur Pálmason eta Matias Mosterín, epaimahaiburu ofiziala aurtengo edizioan. Argentinarrak nabarmendu duenez, “zinema ahotsen multzo hori da, mundua ikusteko hainbat eta hainbat modu: zuri-beltzean, koloretan, mutu edo zalapartan”.

Sail Ofiziala lehiaz kanpo inauguratu duen *Modelo 77* filmaren aurkezpenaren ondoren, Alberto Rodríguez –filmaren zuzendaria– eta Miguel Herrán eta Javier Gutiérrez –filmeko aktore nagusiak– bertan zirela, ‘Zorionak zuri’ euskaraz abesteko eta pantailan agertu diren eta 70 zenbakia osatzen zuten bi kandela erraldoiri putz egiteko proposamena egin diete ikus-entzuleei galaren aurkezleek.

# Un sueño de 70 años

Un “zorionak zuri” entonado por Paco León y Loreto Mauleón junto con los espectadores de la gala inaugural dio el pistoletazo de salida a la 70 edición del Festival de San Sebastián. La primera, después de dos años, que se celebrará sin mascarillas y con aforos completos.

“¿Hay alguien en el auditorio que estuvo presente en la primera edición de todas?”, preguntaron los presentadores nada más comenzar la gala. Y sí, las había, y “casualmente estaban microfonadas”. Animadas por los dos intérpretes, cuatro de las dantzaris que recibían a las estrellas en aquella primera edición subieron al escenario del Kursaal y recordaron alguna que otra anécdota de aquella época.

A continuación, se dio paso a otra cara ilustre del Festival: Edurne Ormazabal. La que fuera presentadora habitual del certamen animó a los presentes a visitar la exposición que está instalada en Tabakalera y que pone en valor a uno de los mayores activos del Festival a lo largo de estos 70 años, su público. “Este Festival lo hemos soñado y realizado entre todas y todos”, dijo emocionada la periodista.

En el ecuador de la gala se homenajeó con un In Memorian a Alfredo Knuchel, Mariano Larrandia, Tony Parte Arroyo y José Ánge-Herrero Velarde, fallecidos recientemente. Los cuatros fueron parte de la organización del certamen y la edición de este año está dedicada a ellos.

Posteriormente, Paco León y Loreto Mauleón presentaron a los miembros del Jurado Oficial: Matías Mosteirin, Antoinette Boulat, Tea Lindeburg, Rosa Montero, Lemohang Jeremiah Mosese y Hlynur Pálmaaon. El presidente, Matías Mosteirin, tomó la palabra y en su discursó destacó “la capacidad del cine para crear espacios que dan respuesta a la intransigencia y el desencuentro”.

En la recta final, el cineasta Alberto Rodríguez y los actores Javier Gutiérrez y Miguel Herrán, acompañados del resto de su equipo, presentaron *Modelo 77*, película que inaugura la Sección Oficial y que posteriormente verían los asistentes a la gala. Herrán instó a todos a “ir más al cine”. Que así sea.